


Barazkiak eta loreak

Eskolan egiteko ariketak





Bisita egin baino lehen

Mintegi batetara joango zara hemendik gutxira. Bertan egiten diren lanak ezagutuko dituzu, baina joan baino lehen bila itzazu hitz hauen esanahiak:

· Konposta:

.....

· Estoloiak:

.....

· Erraboila:

.....

· Aldaxka (Eskejea):

.....

· Tipula:

.....

· Ongarria:

.....

· Turba:

.....

· Adar zupatzailea (Txupoia):

.....

Ugalketak modu asko ditu

Bila ezazu nola ugaltzen diren...

· Arrosoa (larrosa):

· Letxuga:

· Marrubi landarea:

· Patata:



 Zein ezberdintasun dago landareen ugaltze modu naturalaren eta gizakiak egiten duenaren artean?

.....

.....


.....

.....

.....

.....

Loreen esanahia

 Landareek ezkutuko esanahi bat izan dezakete, kodigo baten antzera, eta garai batean asko erabiltzen zen. Adibidez norbaitek arrosa gorriak oparitzen ba dizkizu maitasuna eta pasioa adierazi nahi dizu oparitzen dizkizunak! Eta aldiz, arrosak horiak badira, zeloak dituela esan nahi dizu. Koloreaz gain, lore edo landare motak esan nahi desberdinak dituzte, ea lotzen duzun landare/lore multzo hau dagokion esanahiarekin:

Sahats negartia

lasaitasuna

Ezkie

purutasuna

Olibondoa

norberekeria

Nartzisoa

maitemintzea

Arrosa zuria

garaipena, arrakasta

Krabelin gorria

bakea

Ereinotz (erramua)

atsekabea, nahigabea, samina



Haziak aztertzen

Haziak "lotan" diraute baldintza egokiak aurkitu arte. Ziurrenik hazi mota bat baino gehiago ezagutuko duzu.

Aukera itzazu 4 mota ezberdin eta koadroa bete ezazu:

	Landarearen izena	Hazia				Fruitua		
		Tamaina	Kopurua	Forma	Ernaltze garaia	Mota	Forma	Garaia
1. hazia								
2. hazia								
3. hazia								
4. hazia								

Marraztu ezazu gustatzen zaizun barazki edo lore bat eta aukeratzearen zergatia aipatu.

Awale-a ezagutzen al duzu? X. mendean sortu zen joko bat da, hazien ereintzan oinarrituta dagoena. Interesatzen bazaizue, informazioa interneten bila dezakezue eta ikasgelan jolastu.







Bisita egin eta gero

Hazien zikloa

Mintegiko bisitan ikusi ahal izan duzun bezala, landareak hazien bitartez ugaltzeko behin eta berriz errepikatzen den zikloa jarraitu behar du. Hemen ziklo horretako pausoak agertzen dira desordenaturik.

Ordena itzazu!





Etxera eraman duzun landareetako batek hosto horiak dituela ikusiko bazenu ... zer adieraziko lizuke?

.....
.....

Eta hostoetan puntu beltzak ateratzen hasten bazaizkio?

.....
.....

Nola lor dezakezu oporretara zoazenean etxean dituzun landareak ureztatuta modu egokian mantentzea?

.....
.....

Landare batek zein elementu behar ditu nahi eta nahi ez bizi ahal izateko?

.....
.....

Zer jartzen zaio zurtoinean ebakidura txiki bat egin eta aldaxka batek zainak atera ditzan laguntzeko?

.....

Landareen erabilpenak

Zure eguneroko bizitzan zenbat landare klase erabiltzen duzu? Zertarako?

.....
.....

Zein desberdintasun nagusi ikusten duzu ondorengo landareen artean:

- Garoa edo iratzea eta mitxoleta:
- Huntza eta pagoa:
- Haritza eta sasi akazia:
- Pinua eta alertzea:
- Primula eta Agapanthus:



Nongoak dira?

 Zergatik uste duzu landatzen direla kanpotik ekarritako landareak?


.....

.....

.....

.....

.....

 Kanpoko landareak sartzeak gure ingurunean zein arazo sor ditzaketela uste duzu? Ezagutzen al duzu landare inbaditzaileak? Zein?

.....

.....

.....

Lore , landareak eta barazkiak ekoizten dituen baserritarra ezagutu duzu, baina badira eztia, abarkak, gazta, ogia, frutak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?

“Baserrria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitetz zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!